



2023ko EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herriaren nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa. Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna.

Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gainditu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzeraino.

Izan ere, erakundeoi eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Erakunde publikoai dagokigu euskararen biziberritzea benetakoa eta noranahikoa izatea ahalbideratuko duen akordio sozial eta politiko zabala lortzeko bidea egitea.

Akordioa lortzea ez ezik, beste erronka batzuk ere agerian daude gure herrian. Erronka handienetariko bat da eguneroko bizitzan euskararen erabilpena indartzea. Han ere, hiztunok zein erakunde publikoek gure ahalegin onenak egin beharko genituzke hori lortzeko.

Abenduaren 3a egun aproposa da bide horren abiapuntua marrazteko. Adostasunez nora goazen argi esan, eta egin beharreko urratsak zehazten hasteko garaia da.

Izan gaitezen eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.

Agurainen, 2023ko abenduaren 3an

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA EL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA 2023

Somos euskaldunes, somos en euskera, y esa es una de las señas de identidad más significativas de nuestro pueblo. El Día Internacional del Euskera suele ser, cada año, un día para recordar lo que somos. Un día para decir que el color que da este pueblo al mundo es el euskera. Un día de orgullo sin arrogancia. Una celebración.

Este año, sin embargo, tenemos los rincones brumosos. Mes a mes nos han querido condenar a la sombra. Una y otra vez. Los ataques contra el euskera no han cesado y la arremetida que ha llegado desde los juzgados ha traspasado las líneas rojas, hasta el punto de cuestionar incluso la oficialidad del propio euskera.

Porque a las instituciones nos toca dar ejemplo. Ejemplo de ciudadanía. A las instituciones públicas nos corresponde avanzar hacia un acuerdo social y político amplio que permita que la revitalización del euskera sea real y accesible.

Además de llegar a un acuerdo, otros retos están a la vista en nuestro país. Uno de los mayores retos es potenciar el uso del euskera en la vida cotidiana. También allí, tanto los hablantes como las instituciones públicas deberíamos hacer nuestros mejores esfuerzos para conseguirlo.

El 3 de diciembre es un día idóneo para dibujar el punto de partida de este camino. Es hora de decir claramente adónde vamos de acuerdo y empezar a definir los pasos a dar.

Seamos ejemplo. Priorice el futuro. Enséñame el sol a lo que sea. Demos el euskera y el camino a la ciudadanía.

En Agurain, a 3 de diciembre de 2023